Espediente zk.: 2021009

Kontratazioaren xedea: laguntza-zerbitzu espezializatuak KDOentzako zaintza eta adimen lehiakorra gauzatzeko

Dokumentua: Preskripzio Teknikoen Plegua

Edukia


1 SARRERA 3
2 KONTRATATUKO DEN ZERBITZUAREN BEHARRA 3
3 AURREKARIAK: 4
3.1 KASL (kluster adimen-sistema lehiakorra) 2011-2013 4
3.2 Kluster arteko lantaldea, adimen lehiakorrari buruzkoa 2016-2019 4
3.3 KDOentzako ZAetan espezializatutako zerbitzuaren lizitazioa 2019-2021 4
4 KONTRATAZIOAREN XEDEA 4
5 EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA 4
6 ZERBITZUA DIMENTSIONATZEA 8
7 PROIEKTUARI ESLEITUTAKO LANGILEEK IZAN BEHARREKO PROFIL PROFESIONALA 8

1 SARRERA

Zaintza teknologikoa eta adimen lehiakorra praktika orokor bihurtu dira gaur egungo erakundeetan. Praktika horien bidez, kanpoko informazioa bildu eta interpretatzen da, ezagutza hori estrategia korporatiboaren berrikuntza-, formulazio- eta ezarpen-prozesuetan txertatzeko.
Zaintza deritzo kanpoko eta erakunde barneko informazioa biltzeko, hautatzeko, aztertzeko, hedatzeko, komunikatzeko eta ustiatzeko prozesu sistematiko eta antolatuari, UNE 166.006 arauaren arabera. Bestalde, adimenak erreferentzia egiten dio zaintzaren ondorioz sortu den eta balio erantsia duen produktuari, hori interpretatzeko eta ezagutza sortzeko; baliagarria da erabakiak hartzeko orduan.
Dokumentu honetan Zaintza eta Adimena (ZA) izendapena erabiliko dugu bi kontzeptu horiei erreferentzia egiteko. ZAren helburuak anitzak dira:

- Arriskuak murriztea mehatxuak antzematearen eta aldaketak aurreikustearen bidez.
- Berrikuntzak egitea, konponbide eta ideia berriak antzemanda.
- Aurrerapen teknologiko berriak sartzeko bidea erraztea.
- Espezializazio-estrategia bideratzen laguntzea.
- Aurrera egitea produktuen eta bezeroen beharrizanen arteko desfaseak antzemanda.
- Beste erakunde batzuk ezagutzea eta horiekin elkarlanean aritzea.

ZA etengabeko prozesua da eta grafikoki irudikatu daiteke, biribil baten irudia erabilita:



2 KONTRATATUKO DEN ZERBITZUAREN BEHARRA

Informazioaren bolumenak etengabe egiten du gora, eta, horren ondorioz, “infoxikazio” terminoa agertu da Interneten dugun informazio-gainasetasunari erreferentzia egiteko.
Sarean dagoen informazioa garrantzitsua izan daiteke eta ZAren prozesuei lagun diezaieke, baina erakundeek hautaketa-esfortzu bat egin behar dute informazio hori “digeritzeko” erabakiak hartzeko prozesuan erabili baino lehen.
Lana gehiegizkoa izan daiteke beharrizan estrategikoak zehazten ez badira eta iturri eta bilaketa-estrategia egokiak aukeratzen ez badira.

Arrazoi horiek direla medio, SPRIk **zaintza eta adimen lehiakorra gauzatzeko laguntza-zerbitzu espezializatuak** kontratatzeko beharra du.

3 AURREKARIAK:

Ondoren, azken urteetako ZAri buruzko esperientzia esanguratsu batzuk aipatzen dira, zeintzuetan parte hartu duten klusterrak dinamizatzeko erakundeek, Eusko Jaurlaritzak eta SPRIk.

3.1 KASL (kluster adimen-sistema lehiakorra) 2011-2013

Eusko Jaurlaritzaren ekimena 2011 eta 2013 artean garatu zen. Behatokiak abiaraztea erraztu zuen eta klusterren berrikuntza-gaitasuna indartu zuen zaintza teknologikoaren, merkatuaren zaintzaren eta adimen lehiakorraren bidez.
KALSek Klusterren Dinamizazio Organoen esku jartzen zituzten multzokatutako beren enpresak (bereziki ETEak); hots, laguntza sistema bat informazio lehiakorreko behar komunak antzemateko eta informazio estrategikoa eta negozio-aukerak bildu, aztertu eta zabaltzeko. Horren balioa erabakiak hartzeko momentuan nabarmentzen da.
Organo dinamizatzaile gehienek zeregin hori hartzen dute barne eta zerbitzu horiek eskaintzen dizkiete gaur egun multzokatutako enpresei.

3.2 Kluster arteko lantaldea, adimen lehiakorrari buruzkoa 2016-2019

SPRIk 2016an martxan jarritako ekimena da, kluster arteko partaidetza-esparru batekin, ZAren inguruko esperientziak eta jardunbide egokiak komunean jartzeko.
ZAren sistematikari buruzko esperientziak trukatu dira, baita erabilitako euskarrien, ZA produktuen sorkuntzaren, horien ustiapenaren, eta abarren ingurukoak ere.
Interes komuneko gaiak ere aztertu eta baliozkotzat jo dira, elkarlanerako ZAren bidez sinergiak aprobetxatzeko.

3.3 KDOentzako ZAetan espezializatutako zerbitzuaren lizitazioa 2019-2021

2019an Elkarlanerako Zaintzarako laguntza-zerbitzuen lizitazioa egin zen KDOentzat, eta, bertan, interesa piztu zuten gaien inguruko hainbat lantalde sortu ziren.

4 KONTRATAZIOAREN XEDEA

SPRIko Enpresa Sustapenerako sailak eskatzen du, klusterrak dinamizatzeko departamentuaren bidez, KDOen lantaldearentzako **zaintza eta adimen lehiakorreko prozesuetan laguntzeko zerbitzu espezializatuak** kontratatzea. Kontratuaren xede diren ekintzak Euskal Autonomia Erkidegoan garatuko dira. Epea **bi urtekoa izango da, eta, SPRIk eskatuta, beste urtebetez luzatu ahal izango da.**

5 EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA

KDOen lantaldea

Kontratuaren hornitzaileak bete beharreko helburua da elkarlanerako ZA unitateen koordinazioan parte hartzen duten SPRI taldeari eta KDOei laguntzea, eta, horretarako, honako zeregin hauek bete beharko ditu:

1.- Idazkaritza eta koordinazioa:

1. Dagoeneko KDOen lantaldean idazkaritza teknikoarentzat eskuragarri dagoen informazioaren euskarri den plataforma kudeatzea. Lan horrek barne hartzen du enpresa esleipendunaren langileak plataforma hori erabiltzeko prestatzea eta gaitzea. Prestakuntza eta laguntza horren kostua 7.500 eurokoa da, gehi 16 orduko dedikazioa pertsonako; esleipendunak zuzenean ordainduko dio kopuru hori plataformaren hornitzaileari.
2. Elkarlanerako ZA unitateen eragiketa eta unitate berriak ezartzea, honako hauek bermatuta: metodologien eta formatuen bateragarritasuna, ezarritako prozesuen kalitatea eta zaintzaren emaitzen balioa azpimarratzen dela.
3. ZAren emaitzen ustiapena dinamizatzea eta horren balioa nabarmentzea, ZA unitateen erabiltzaileen arteko elkarreragina erraztuta, txostena eginda eta hobekuntza proposatuta.

2.- Elkarlanerako ZA:

Lizitazio honen hornitzailearen xedea da elkarlanerako ZAn parte hartu nahi duten EAEko klusterrak dinamizatzeko erakundeei laguntzea. Horretarako, jarraian deskribatutako lanak egin beharko dira:

1. Dagozkien eremuei atxikitako ZA unitate guztiak martxan jartzea. Ustiapenerako edukiak eta parametroak ezartzea, zerbitzuaren hartzaileekin lankidetzan (12 erabiltzailera arte). KDOen lantaldeak behin-behinean antzemandako zaintzaren inguruko gai garrantzitsuen zerrenda bat ere badago.
2. ZA unitateak martxan jartzea eta ZA produktuak sortzea, ZA unitate bakoitzeko hilabeteko txosten bat eta gainontzeko produktuak barne (alertak, analisi espezifikoak, eta abar). Gainera, bermatu beharko da metodologien eta formatuen bateragarritasuna, gainontzeko ZA unitateekin bat etorriz.
3. ZAren emaitzen ustiapena dinamizatzea eta horren balioa nabarmentzea.
   - ZA unitate bakoitzeko zerbitzuaren hartzaileei laguntza ematea erratzea, zaintzako emaitzen eta produktuen balioa nabarmentzea, ezarritako helburuekin bat etorrita.
   - ZA unitate bakoitzeko jarduera aztertzeko eta hobetzeko urteko txostena sortzea, eta bertan barne hartzea hobetzeko gomendioak.
   - SPRIrekin elkarlanean aritzea ZA unitateen jarduera egokia izateko beharrezkoa den alderdi guztietan, ZA unitate guztien arteko koordinazioaren eta zerbitzuaren kalitaterik onena bermatuta. Halaber, SPRIrekin elkarlanean aritzea ZA unitateen arteko sinergia posibleak antzemateko, elkarrekin ustiatze aldera.

Zerbitzua ezartzeko gehieneko epea 30 egutegi-egunekoa izango da kontratua indarrean sartzen den momentutik aurrera zenbatzen hasita.

Eranskina: ZAren inguruko gai garrantzitsuak

1.- ERALDAKETA ENERGETIKOA, KLIMA ETA DESKARBONIZAZIOA

KDOen lantaldeak jarraian aipatutako interes komuneko zaintzaren inguruko gai garrantzitsuak antzeman ditu, zeintzuek abiapuntua eratzen duten, eta esleipendunak balioetsi beharko dituen, ZA unitate honen hartzaileekin batera.

- EAEn hidrogenoaren garapenaren buru izateko aukerak.
- Konponbide eta joera teknologikoak, ikuspuntua mundu-mailako liderrengan jarrita (bereziki Alemania eta Austriaren moduko herrialdeetan), honako helburu hauek betetzeko:
  - Ekipoen eta prozesuen efizientzia hobetzea (sektore bakoitzeko teknologia produktiboei lotuta).
    - Ekipoen kontsumoa murriztea/erregai alternatiboak edo sistema elektrikoak erabiltzea.
    - Energia-galerak murriztea/ezabatzea (beroa).
  - Baliabideen efizientzia. Produktu berriak garatzeko beharra. Horretarako, aintzat hartu behar dira ekodiseinua tresnatzat duen erregulazioa, fabrikazio-prozesuan CO2rik sortzen ez duten produktuak, zirkularitatea eta bizitzaren zikloa.
  - Beroa berreskuratzea. Aprobetxatzea lerroen hondar-beroa berotzeko, tratamendu termikoak.
  - Hondakinak balioztatzea.
  - Energia-trantsizioari, klimari eta ekonomia zirkularrari aplikatutako IKTak.
  - *Distric Heating and Cooling* (DHC).
- Aplikatzekoa den arautegia dokumentatzea (arauak eta politikak).
- Programak eta laguntzak.

2.- *SMART CITIES*

KDOen lantaldeak jarraian aipatutako interes komuneko zaintzaren inguruko gai garrantzitsuak antzeman ditu, zeintzuek abiapuntua eratzen duten, eta esleipendunak balioetsi beharko dituen, ZA- unitate honen hartzaileekin batera.

- Hirigintza-plangintza – *Smart cities.*
- Eraikinen energia-efizientzia - *Distric heating.*
- IKTak (IoT deriotzon Gauzen Interneta eta sentsorikoa) txertatzea eraikitako lurraldeetan, baita lurraldea planifikatu eta kudeatzeko informazioa aztertzeko sistemak ere, eta hiri-zerbitzuak sortu eta hobetzea.
- Aplikatzekoa den arautegiaren dokumentazioa.
- Programak eta laguntzak.

3.- *SMART MOVILITY*

KDOen lantaldeak jarraian aipatutako interes komuneko zaintzaren inguruko gai garrantzitsuak antzeman ditu, zeintzuek abiapuntua eratzen duten, eta esleipendunak balioetsi beharko dituen, ZA unitate honen hartzaileekin batera.

- Teknologia-joerak eta arrakasta kasuak hiriko garraiobide berriei dagokienez (ibilgailu elektrikoa, katenariarik gabeko tranbia…) eta horien inplikazioa hirigunean (karga-puntuak eraikinetan, biltegiratzea eta energia kargatzea).
- Mugikortasun jasangarria eta adimentsua landa-eremuetan.
- Logistika adimentsua.
- Hiri-hondakinen bilketa adimentsua eta mugikortasun jasangarria.
- Aplikatzekoa den arautegiaren dokumentazioa.
- Programak eta laguntzak.

4.- NAZIOARTEKOTZEA

KDOen lan-taldeak xede nagusitzat landu du herrialde zehatz batzuetan negozio-aukerak antzematea.

NEGOZIO-AUKERAK Lizitazioen aurreko heltze-prozesuko faseetan dauden proiektuak antzematen dira, horietan oraindik ez delako jarduteko denbora amaitu.

- ARRETA JARRI BEHARREKO SEKTOREAK:
  - Energia, burdinbideak, siderometalurgia, ingurumena, azpiegiturak, logistika, IKTak, ikus-entzunezkoak, papera, aeronautika, automobilgintza, makina-erremintak, bio-medikuntza.
- ARRETA JARRI BEHARREKO HERRIALDEAK (LANTALDEAREN LEHENTASUNEN ORDENAREN ARABERA):
  - Kolonbia, Mexiko, AEB, Brasil, Frantzia, Iran, Txina, Erresuma Batua, Alemania, Italia, India, Maroko, Japonia, Arabiar Emirerriak, Saudi Arabia, Errusia. Gutxienez, 7 herrialde hartu beharko dira barne.
- Esleipendunak eguneratu eta balioetsi beharko ditu zaintzarako erabakigarriak diren gai, iturri eta faktoreak, ZA unitate honetako hartzaileekin.

5.- *CLUSTER EXCELLENCE*

KDOen lantaldeak jarraian aipatutako interes komuneko zaintzaren inguruko gai garrantzitsuak antzeman ditu, zeintzuek abiapuntua eratzen duten eta esleipendunak balioetsi beharko dituen, ZA unitate honen hartzaileekin batera.

- Europako programak kluster arteko lankidetzarako, eta COSME eta H2020 proiektuetarako.

- Deialdiak, proposamenak prestatzeko metodologiak.
- Ereduak, lankidetza adibideak.
- Partzuergoak identifikatzea.
- Lankidetzarako kluster europarren mapa – baterako lizitazioak.
- Jardunbide egokiak kideen gogobetetasunaren ebaluazioan.
- Jardunbide egokiak klusterren kudeaketan eta funtzionamenduan.
- KDOen zerbitzuen digitalizazioa.

6.- ERALDAKETA DIGITALA

Ezarri beharreko ZA unitate berri bat da, KDOen informazio-beharrizanak betetzeko digitalizazioari, adimen artifizialari, *big datari* eta antzeko gaiei dagokienez.

Zaintzako gai, iturri eta faktore erabakigarrien irismen zehatza mugatuko da, unitate horretako hartzaileekin.

- Negozio-ereduak, zerbitizazioa
- Lan egiteko moduak
- Merkatuetarako sarbidea

6 ZERBITZUA DIMENTSIONATZEA

Proiektuari esleitutako pertsona-taldea zerbitzuaren beharrizanetara moldatu beharko da; horretarako, zeregin bakoitza egiteko baliabide egokiak aipatu beharko ditu, modu bidezkoan Administrazio Klausula Berezien Pleguaren Klausula Espezifikoen 22.2.1 atalean adierazitako pertsonen profil posibleak izendatuta.

7 PROIEKTUARI ESLEITUTAKO LANGILEEK IZAN BEHARREKO PROFIL PROFESIONALA

Aurreko atalean deskribatutako zereginak betetzeko, goi-mailako titulazioa eta enpresa-estrategiaren arloko esperientzia duten pertsonen talde bat beharko da. Halaber, aintzat hartuko da klusterren inguruko esperientzia espezifikoa, baita enpresa-garapena, berrikuntza eta digitalizazioa, jasangarritasuna, zaintza eta adimena arloetako esperientzia ere, eta, zehatzago, ZA unitate bakoitzeko zaintzarako garrantzitsuak diren gaiei buruzko esperientzia.